# SANTIAGOS 2014

Editorial MIC



# ERMUKO JAIAK



# *Alkatearen* Agurra



Ohikoa denez uztaila iristean horrenbeste espero ditugun herriko Santixau Jaiak ospatzeko prestatzen gara, orduantxe biltzen gara-eta guzti-guztiok kalean, elkarrekin gozatzeko eta ondo pasatzeko, guztiok elkar hartuta egun bizitzen ari garen unearen berezko zailtasun eta arazoetatik urruntzeko ahaleginetan.

Gure jaiak herritarren bizikidetzaren adierazgarri dira, Ermuan bizi garenok eta kanpotik datozkigunak elkartzearen erakusgarri, eta horregatik familiarteko ospakizun handietan ohi bezala prestatzen dugu gure herria: handikiro, ezertxo ere ez dadila falta!

Horixe da Ermuko elkarte eta taldeek Udal Kultura Sailarekin lankidetzan aritzean daukaten espiritua, egitaraua orotariko jarduerekin prestatzeko, denok ordezkatuak egon gaitezen eta urte osoan zehar udalerrian den jardueraren erakusleiho izan dadin, denon intereseko ikuskizun eta jardunaldiak Ermura ekartzeko aukera aprobetxatzeaz batera. Horregatik Jai Batzordea eratzen duten pertsona eta erakunde guztiei eskerrak ematen dizkiet urtero Udalaren izenean egitaraua prestatzean egindako ahaleginarengatik, eta ez nuke honako aukera inola ere galdu nahi jaien antolaketak suposatzen duen partaidetza eta lankidetza gogorarazi eta azpimarratzeko.

Aurkezten dizuedan egitarau honek osagai guztiak ditu uda ostean, aurretik dugun urte osoan zehar, 2014 urte honetako jaiak gogoan izateko. Ez da harritzekoa honako jai hauek onenetarikoak izatea pertsona askorentzat, eskaintzen diren jarduera eta proposamen ugariengatik, ikuskizun, kontzertu eta orkestra aniztasunarengatik, kaleko antzerkiarengatik…

Baina ez dago jai-egitarau on edo osorik herritar guztiak jaiez gozatzera animatzeko gauza ez bada, horregatik ekitaldietara joanez gero gozatzera joango zareten ziurtasunez 2014ko Santixau Jaietara etortzera eta gozatzera gonbidatzen zaituztet guzti-guztiok.

Aupa Santixau Jaiak!

**Carlos Totorika**
***Alkatea***

MIC Edizioak
Tel·: 902 271 902
www.editorialmic.com

**Argitaratzen duena:** Ermuk Udala
**Azala:** Susana Ibáñez. 2014ko Santixauko kartel lehiaketa
**Argazkiak:** Ainhoa Lasuen

## 2014ko Santixauak

# *Ermuko Jaiak*

*(Uztailaren 14tik 27ra)*

### UZTAILAREN 14a, ASTELEHENA

• **Arratsaldeko 6etan,** Lobiano Kultur Gunean, Senegaleko Ismaila Coly artistaren MARGO **ERAKUSKETA**, hilaren 20ra arte.

• **Arratsaldeko 7etan,** Orbe Kardenalaren plazan, artaburu eta pepino lehiaketek emango diete hasiera Txarangen Batzordeak antolatutako **TXARANGEN ARTEKO JOKOei.**

• **Gaueko 10,30ean,** Valdespinako Markesaren parkean, pop- rock **KONTZERTUA** Versionarios taldearen eskutik.

### UZTAILAREN 15a, ASTEARTEA

• **Arratsaldeko 7etan,** Orbe Kardenalaren plazan, **TXARANGEN ARTEKO JOKO** gehiago. Oraingo honetan soka-tira lehiaketa eta pringe proba izango dira.

• **Gaueko 10,30ean,** Valdespinako Markesaren parkean "Erdaldun berrien kluba" **KALE IKUSKIZUNA,** Olatz Pagaldairen eskutik, Euskal Birusak antolatuta.




Aldarrikatu
zabaldu
eragin
erabili
Ozen
garbi
alai
harro
Euskara

## UZTAILAREN 16a, ASTEAZKENA

• **Arratsaldeko 7etan** Orbe Kardenalaren plazan **TXARANGEN ARTEKO JOKO** gehiago. Oraingo honetan triatloia eta jatorrizko bekatua probak izango dira.

• **Gaueko 10,30ean, BERTSO JAIALDIA** Valdespinako Markesaren parkean, Deba-Beheko Bertso Eskolak antolatuta. Bertan izango dira, Nerea Ibarzabal, Malen Amenabar, Beñat Ugartetxea, Manu Goiogana, Josu Oiartzabal eta Eneko Lazkoz bertsolariak.

## UZTAILAREN 17a, OSTEGUNA

• **Arratsaldeko 6etan,** Udal kiroldegian **ARETO-FUTBOL TXAPELKETA** ren hasiera, Saltzaileak F.S.k antolatuta.

• **Arrasatsaldeko 7etan,** Orbe Kardenalaren plazan, **TXARANGEN ARTEKO JOKOAK:** soka-tiraren finala eta kuboen proba.

• **Gaueko 10,30etan** Valdespinako markesaren parkean, pop-rock **KONTZERTUA,** Mursego musikarieren eskutik. Antolatzaile: Euskal Birusa.

## UZTAILAREN 18a, OSTIRALA

• **Arratsaldeko 6etan,** Udal Kiroldegian **ARETO-FUTBOL TXAPELKETA.**

• **Arratsaldeko 6etan,** Orbe Kardenalaren plazako pilotalekuan, **PALETA TXAPELKETAREN FINALAK,** Paleta klubak antolatuta. Euria egonez gero, partidak Aritzmendi pilotalekuan egingo dira.

• **Gaueko 10,30etan,** Orbe Kardenalaren plazan **PLAY-BACK LEHIAKETA,** Txarangen Batzordeak antolatuta.



## UZTAILAREN 19a, LARUNBATA

• **Goizeko 9etan,** Udal Kiroldegian, **ARETO-FUTBOL TXAPELKETA.**

• **Goizeko 10etan** Orbe Kardinalaren plazatik URKO 69etan ezetz! VI. **IGOERA KONTROLATUA**ri hasiera emango dio Artarrai mendizale taldeak.

• **Goizeko 10etan,** Gipuzkoako etorbidean 10ean dagoen gunean, David Genicio-ren omenez **ERMUA HIRIKO III. SLOTRALLY**aren hasiera, Slot Ermua taldeak antolatuta.

• **Goizeko 10etan,** Orbe Kardenalaren pilotalekuan **ARKU-TIRO PROBA** Beti-Ondo arku-tiro taldeak antolatuta. Nahi duen guztiak parte hartu ahal izango du.

• **Goizeko 11etan,** Lobiano Kultur Gunean, **ERROL eta ESTRATEGIAREN JOKOAK** Draconia taldeak antolatuta.

• **Goizeko 11etan** Orbe Kardenalaren plazan Iñigo Argandoña Maisu Internazionalak eskainiko duen **ALDIBEREKO XAKE PARTIDEN ERAKUSKETA,** nahi duen guztiari zabalik parte hartzeko, Ermutarrak Xake Taldeak antolatuta.

• **Arratsaldeko 4:30ean** Orbe Kardinalaren plazan **XII. MUS TXAPELKETA HERRIKOIA,** Afaltzaindia taldeak antolatuta.

• **Arratsaldeko 5etan,** Ermuko Txirrindulari Elkarteak antolatutako nazio mailan umeentzako (neska eta mutilak) **2014ko SANTIXAUAK TXIRRINDULARITZA PROBA**, Anbreko industriagunean.

• **Arratsaldeko 7etan,** Orbe Kardenalaren plazan, **DANTZA EMANALDIA** Txindurri taldearen eskutik.

• **Gaueko 11:30ean** San Pelaio plazan, Seguridad Social taldearen **KONTZERTUA**.

## UZTAILAREN 20a, IGANDEA

• **Goizeko 8etan,** Mallabiko Pedro Deunaren zelaian, **TXAKURREN ERAKUSTALDI-LEHIAKETA**. La Verdad ehiza eta arrantza elkarteak antolatuta.

• **Goizeko 9etan,** "Miguel Ángel Blanco" Udal Kiroldegian, **ARETO-FUTBOL TXAPELKETA**ren azken fasearen hasiera.

• **Goizeko 9:30ean, MENDI-BIZIKLETAKO XIX. HERRI MARTXARI** emango zaio irteera Orbe Kardinalaren plazatik, Urko Mendiko Txirrindulariak taldeak antolatuta.

• **Goizeko 10etan,** San Martin plazan, **BLOOD-BOWL TXAPELKETA,** Draconia taldeak antolatuta.

• **Goizeko 10etan**, Orbe Kardenalaren plazan, **HERRI-ARTEKO XAKE PARTIDA AZKARREN XIX. LEHIAKETA,** Ermutarrak Xake Taldeak antolatuta.

• **Goizeko 11:00etan** San Pelaio plazan, **IRRATIZ KONTROLATURIKO KOTXEEN 'ERMUA HIRIA' XVII. TXAPELKETA**, Eztanda taldeak antolatuta.

• **Arratsaldeko 7etan** Orbe Kardinalaren plazan **MUSIKA** eta **DANTZA JAIALDIA**, Erkidegoen eguna ospatuz herriko kultur zentroek antolatuta, Ipar Osetiko Gorets eta Costa Ricako Tierra y Cosecha taldeen eskutik.

• **Arratsaldeko 7etan,** Udal Kiroldegian, **FUTBOL ARETOKO TXAPELKETAREN FINALA**.

## UZTAILAREN 21a, ASTELEHENA

• **Arratsaldeko 5etan,** generoaren ikuspuntu batetik egindako jaiak gaiari buruzko "Festa dezagun gaurdanik geroa" **DOKUMENTALAREN EMANALDIA**, Lobiano Kultur Gunean. Antolatzaile: Tratu onen aldeko elkartea.

• **Arratsaldeko 6etan,** Orbe Kardenalaren plazan, Jaietan tratu onen aldeko **PHOTOCALL**a, Tratu onen aldeko elkarteak antolatuta.

• **Gaueko 10,30ean** Valdespina Markesaren parkean, soul **KONTZERTUA** Betty Soul taldearen eskutik. Antolatzaile: Komite Internazionalistak

## UZTAILAREN 22a, ASTEARTEA

• **Gaueko 9etan,** Orbe Kardenalaren plazan, **HERRI OGITARTEKADA,** ogitarte eta edarien salneurri bereziaz banaketarekin, Txarangen Batzordeak antolatuta.

• **Gaueko 10,30ean** Orbe Kardinalaren plazan **TXARANGEN ABESTI-LEHIAKETA.** Lehiaketatik kanpo Irulitxa txarangak joko du.

## UZTAILAREN 23a, ASTEAZKENA (Umeen eguna)

• **Goizeko 10:30ean BURUHANDIAK** Orbe Kardinalaren plazan.

• **Goizeko 11etatik** ordu 1era eta arratsaldeko 4retatik 7etara, Orbe Kardinalaren plazan, **HAURRENTZAKO PARKEA eta TAILERRAK**, Txarangen Batzordeak antolatuta (euria eginez gero ekitaldiak Aritzmendi pilotalekuan izango dira).

• **Arratsaldeko 5etan HAURRENTZAKO TXOKOLATE-JANA** Orbe Kardinalaren plazan, Txaranga Batzordearen eskutik eta BM Supermerkatuen laguntzarekin.





• **Arratsaldeko 7etan** Orbe Kardinalaren plazan "Kanpanolue…11 salto gehiago!" **HAURRENTZAKO MUSIKA-IKUSKIZUNA,** Eidabe taldearen eskutik.

## UZTAILAREN 24a, OSTEGUNA

• **Arratsaldeko 5etan,** Patxi plazan, jai opari banaketa Drogomenpekotasun Prebentzioko Udal Zerbitzuen eskutik.
• **Arratsaldeko 7etan** Orbe Kardinalaren plazan "Irulitxa' musika-bandak alaituriko **TXARANGEN AURKEZPENA** eta ohiko **KALEJIRA** herriko kaleetan zehar.

• **Gaueko 10etan,** Valdespina Markesaren parkean, Beti txarto taldeak antolatutako **MUSIKA EEKTRONIKOAREN JAIALDIA** ondorengo taldeekin: - César Almena (Code Fabrik Madrid) ,Asier & Araujo, Alexander M, Fey, Javierski, Sebita.

• **Gaueko 11etan DANTZALDIA** Orbe Kardinalaren plazan Esmeralda orkestrarekin.

## UZTAILAREN 25a, OSTIRALA

• **Goizaldeko 4retatik** 6etara Pasarela orkestrak **GAUPASA** girotuko du.

• **Goizeko 7etan TXOKOLATE-JANA** Orbe Kardinalaren plazan, Gaztela-Leoneko Kultur Zentruak antolatuta.

• **Goizeko 7:30ean** Orbe Kardinalaren plazako pilotalekuan Txarangen batzordeak antolatutako **BARRUS** partidak izango dira. Laguntzaile: Zabal taberna.

• **Goizeko 8etan, SOKAMUTURRA** izango da Ongaraiko Eskolako patioan.

• **Eguerdiko 12etatik** ordu 2etara eta arratsaldeko 5etatik 8etara **HAURRENTZAKO PARKEA** San Martin plazan.

• **Eguerdiko 12,30ean** Santiago Apostoluaren elizan **MEZA** izango da patroiaren omenez.

• **Eguerdiko 12:30ean, HERRI-KIROL** ikuskizuna Orbe Kardinalaren plazan, probak eta partehartzaileak honakoak dira:
• **HARRIJASOTZAILEAK:** Inaxio Perurena, Jon Gisasola eta **Haritz Etxebarria**
• **AIZKOLARIAK:** Jesús Gisasola, Bihurri II, Hodei Ezpeleta eta Ioritz Gisasola

• **Eguerdiko 12,30ean, KALEJIRA** Ustekabe txarangaren eskutik.

• **Arratsaldeko 4etan** San Pelaioko Bolatokian **BOLO-PALMAko SANTIXAUAK 2013 SARIA**, Ermuko Peña Bolística Montañesa e Kantabraiko Berangako bolo taldearen aurka. Antolatzaile: Peña Bolística Montañesak.

• **Arratsaldeko 5etan** Aritzmendi pilotalekuan **PROFESIONAL ARTEKO ESKUPILOTA PARTIDAK:** Jaka- Merino I  Mendizabal III- Larrinagaren aurka eta Mtnez. de Irujo- Tolosa  Titín III- Zabaletaren aurka. Antolatzaile: Ermuko  Pilota Taldea.

• **Arratsaldeko 7etan,** Orbe Kardinalaren plazatik irtenda, **ERRALDOI ETA BURUHANDIEN KALEJIRA** Ondalan konpartsaren eskutik.

# DILO EN CUALQUIER IDIOMA
# EN FIESTAS,
# YO ♥ BUENOS TRATOS

# ESAZU EDOZEIN HIZKUNTZATAN
# JAIETAN ERE,
# NIK ♥ TRATU ONAK

**DISFRUTA DE LAS FIESTAS EN IGUALDAD**
**JAIAK BERDINTASUNEZ GOZATU**

AYUNTAMIENTO DE ERMUA
*ERMUKO UDALA*
Departamento de Igualdad - Casa de la Mujer

CONSEJO MUNICIPAL DE LA MUJER
*EMAKUMEAREN UDAL KONTSEILUA*

- **Arratsaldeko 8etan LARRAINDANTZA** izango da Orbe Kardinalaren plazan, nahi duen guztiak parte hartzeko.
- **Arratsaledeko 8:30ean** Orbe Kardinalaren plazan **EUSKARAREN ALDEKO TOPA-KONPROMISOA**, Afaltazaindia taldeak antolatuta.
- **Gaueko 10etan** Valdespinako Markesaren parkean, Beti Txarto taldeak antolatutako **ROCK eta MUSIKA ELEKTRONIKOAREN JAIALDIA** ondorengo taldeekin:
- Red Blaza, Javierski, Damudot , Alexander M, Sei Urte
- **Gaueko 10:30ean,** Circulation Locale Belgiako taldeak "Trampoline Mision 3" **KALE IKUSKIZUNA** eskainiko du San Pelaioko plazan.
- **Gaueko 11etan** Orbe Kardinalaren plazan Golden orkestrak **DANTZALDIA** girotuko du.

## UZTAILAREN 26a, LARUNBATA

- **Goizeko 7etan, TXOKOLATE-JANA** Orbe Kardinalaren plazan, Gaztela-Leoneko Kultur Zentruak antolatuta.
- **Goizeko 7:30ean, BARRUS** partidak Orbe Kardenalaren plazako pilotalekuan.
- **Goizeko 8etan, SOKAMUTURRA** izango da Ongarai Eskolako patioan.
- **Eguerdiko 12etatik** ordu 2etara eta arratsaldeko 5etatik 8etara, **HAURRENTZAKO PARKEA** San Martin plazan.
- **Eguerdiko 12etan NAGUSIEI OMENALDIA** egingo zaie eta **SARIAK ENTREGATUKO ZAIZKIE** Nagusien Etxeak antolatutako lehiaketa ezberdinetako irabazleei.
- **Arratsaldeko ordu 1ean,** Alboka Musika Eskolako Bandak **KONTZERTUA** eskainiko du Orbe Kardenalaren plazan.
- **Arratsaldeko ordu 2etan**, Aritzmendi Pilotalekuan Nagusien Etxeak **HERRI BAZKARIA** eskainiko die aitona-amona bazkideei.
- **Arratsaldeko 6etan, ESKUPILOTA** partidak izango dira Orbe Kardinalaren plazan, Pilota Taldeak antolatuta. Azpiri (Elorrio) – Bengoetxea (Eibar) Elezkano (Galdakao)- Aldaperen (Mallabia) aurka eta Arrieta (Hernani)- Gorrotxategi (Hernani) Santxo (Usurbil) Irusta (Munitibar)en aurka.
- **Arratsaldeko 7etan,** Patxin eta Potxinek **PAILAZO IKUSKIZUNA** eskainiko du Orbe Kardinalaren plazan.
- **Arratsaldeko 7etan, KALEJIRA** Irulitxa musika-bandak alaituta.
- **Arratsaldeko 7etan, KALEJIRA** Ermuko txarangen eskutik.
- **Arratsaldeko 8etan, LARRAINDANTZA** Orbe Kardinalaren plazan.
- **Gaueko 10etan,** Valdespinako Markesaren parkean, Beti txarto taldeak antolatutako **ROCK JAIALDIA** ondorengo partaideekin:
- Multa, Proyecto Simio, Censurados, Monkday, Insohmnio
- **Gaueko 10:30ean,** Aragoneko Capicua taldeak

"Entredós" **KALE IKUSKIZUNA** eskainiko du San Pelaio kaletik hasita.

- **Gaueko 11etan,** Pasarela Orkestrak, **DANTZALDIA** alaituko du Orbe Kardinalaren plazan

## UZTAILAK 27, IGANDEA

- **Goizeko 7etan** **TXOKOLATE-JANA** Orbe Kardinalaren plazan, Gaztela- Leoneko Kultur Zentruak antolatuta.
- **Goizeko 7:30ean** **BARRUS** partidak Orbe Kardenalaren plazako pilotalekuan.
- **Goizeko 8etan,** **SOKAMUTURRA** Ongarai Eskolako patioan.
- **Goizeko 10etatik 11:30era** Arrozaren banaketa Orbe Kardenalaren plazan eta, ondoren, **PAELLA LEHIAKETAr**i ezagunari ekingo zaio haur eta helduen kategorietan. Antolatzaile: Lobiano Gastronomi elkartea. Laguntzaile: Ermuko dendari eta ostalarien elkartea.



- **Goizeko 11etan** Valdespinako Markesaren parkean **SARDINA BANAKETA** nahi duen guztiarentzat, Nagusien Etxeak antolatuta.
- **Eguerdiko 12etatik** ordu 2etara eta arratsaldeko 5etatik 8etara, **HAURRENTZAKO PARKEA** San Martin plazan.
- **Eguerdiko 12:30ean,** **KALEJIRA** Wesyké txarangaren eskutik.
- **Arratsaldeko ordu 2etan,** paella lehiaketara aurkeztutako platerak **DASTATUKO DIRA** eta ondoren ohiko **HERRI BAZKARIA.**
- **Arratsaldeko 6etan** **ERROMERIA** Orbe Kardinalaren plazan, Lotxo taldeak alaituta.
- **Arratsaldeko 7etan,** **KALEJIRA** Wesyké txarangaren eskutik.
- **Arratsaldeko 7etan,** paella lehiketaren epaimahikoek **IRABAZLAEAK** ezagutaraziko dituzte eta **SARI-BANAKETA** egingo da Orbe Kardinalaren plazan.
- **Arratsaldeko 7,15ean,** Orbe Kardinalaren plazan, **AURRESKUA ETA LARRAINDANTZA** nahi duen guztientzat.
- **Arratsaldeko 8etan,** **ERROMERIA BERRIRO ERE** Lotxo taldeak alaituta.
- **Gaueko 10etan,** **KONTZERTUA** Vendetta taldearen eskutik.
- **Gaueko 11:30ean** Irulitxa musika-bandaren **ONGIETORRIA** Orbe Kardinalaren plazan.
- **Gaueko 12etan** **SUZIRIAK** Ongaraiko parkean. Ondoren **KALEJIRA** Orbe Kardinalaren plazaraino eta bertan jaiei agurra emango dien **AGUR JAUNAK.**
- **Gaueko 12:30ean** **JAIEN AMAIERA** El Consorcio taldeak kontzertua eskainiko du Orbe Kardinalaren plazan.

*2014ko Santixauak*

# *Paella -Lehiaketako oinarriak*

1- Izena eman duen edozein koadrila, txaranga eta pertsona taldek parte hartu ahal izango du. Izena uztailaren 27an Orbe Kardinalaren plazako kioskoan eman beharko da, goizeko 10etatik 12etara.

2- Paella bide publikoan egin eta jan beharko da uztailaren 27an. Izena ematean izen bat eta bi abizena eman beharko dira, bai eta telefono zenbakia eta paella zein lekutan egingo den adierazi.

3- Parte hartzeagatik bakarrik, Ermuko Merkatari eta Ostalarien Elkarteak amantala eta 10 ma¬haikideko arroz pakete bat emango dizkio koa¬drila edo talde bakoitzari.

4- Antolatzaileek ez dute inolako sukalde-tresna¬rik emango (sua, lapikoak...).

5- Uztailaren 27an Orbe Kardinalaren plazako kioskoan aurkeztu beharko dira paellak arratsal¬deko 14etatik 15etara, epaimahaikoek balora ditzaten. Paella aurkezten den momentuan, txa¬ranga senior bakoitzak bi botila-ardo hartuko ditu parte hartzeagatik, eta gaztetxoen txaranga bakoitzak, berriz, bi botila-freskagarri.

6- Epaimahaikoak paella egiten ari den lekura joan daitezke, nola egiten ari den ikustera.

7- Bi kategoriatako sariak egongo dira: seniorra eta gaztetxoena.

8- Senior kategorian bi sari izango dira:
Saria: 500 eta oparia.
Saria: 200 eta oparia.

9- Gaztetxoen kategorian ere bi sari:
Saria: 150 eta oparia.
Saria: 50 eta oparia.

10- Epaimahaikoen erabakia apelaezina izango da,eta Orbe Kardinalaren plazan adieraziko da arratsaldeko 19etan.

11- Lehiaketan parte hartzeak berori arautzen duten oinarriak onartzea suposatzen du. Oi-narriok in¬terpretatzeko orduan zalantzaren bat sortzen bada, Batzorde Antolatzaileak erabakiko.

